



ETWINNING-EN PARTE HARTZEA ERAGITEA

**ZUZENDARITZA-TALDEENTZAKO OINARRIZKO
GIDA**

eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionala



eTwinning LZNak eskerrak ematen dizkie María Isabel Pérezi (Arucaseko Bañaderos-Cipriano Acosta BHIko zuzendariordea) eta Luis Zarcori (Alcázar de San Juango El Santo HHLHko zuzendaria) gida hau prestatzen laguntzeagatik



AURKIBIDEA

- 1. Sarrera**
- 2. Ikastetxearentzako onurak**
- 3. Nola hasi**
- 4. Ikastetxean ekipoak nola sortu**
- 5. Laguntza-sarea**



1. SARRERA

Gida honek klaustroek eTwinning proiektuetan parte har dezaten bultzatzen lagundu nahi die zuzendaritza-taldee, bai eta sor daitezkeen zalantzei erantzun praktiko bat ematen ere. Horrela, zuzendaritza-taldeak eTwinning proiektuetan inplikatzera animatu nahi dira, haien konpromisoa funtsezkoa dela uste baitugu.

Eskuliburu hau zuzendaritza-karguen esperientzian oinarrituta egin da, eta, horretarako, “Equipos directivos: innovando a través de eTwinning” taldean bi urte eta erdiz egin diren hamabost webguneetako zenbait material erabili dira. Horietan lurralde osoko hainbat ikastetxetako ia 50 profesionalek parte hartu dute (HLLH, LIT, BHI, IIP LH, kontserbatorio, hezkuntza bereziko zentroetako zuzendaritza-taldeetako kideak), hezkuntza-ikuskatzaileek, prestakuntza-aholkulariek eta SEPIE eta eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionalako aholkulari teknikoek, hainbat autonomia-erkidegotako eTwinning ordezkariak eta beste agintari batzuek. Hemendik eskerrak ematen dizkiegu guztiei beren lana partekatzeagatik.



2. IKASTETXEARENTZAKO ONURAK

Ikastetxeek eTwinning-en parte hartzea oso onuragarria da ikastetxeentzat. Hona hemen zenbait arrazoi:

- Nazioartekotzea.
- Etorkizunean egingo diren Erasmus+ proiektuetarako motibazioa eta kideak bilatzea.

Sakatu [hemen](#) eTwinning eta Erasmus+ proiektuei buruzko informazio gehiago izateko.

- Aitorpen nazionalak eta europarrak: kalitate-zigiluak eta sariak proiektuei, [eTwinning schools](#).
- Diziplinartekotasuna sustatzea.
- Xede komunak lortzea (herritarren parte-hartzea, genero-berdintasuna, aldaketa klimatikoa...).
- Familien inplikazioa.
- Proiektu elebidunak eta eleanitzak indartzea.
- *Lidergo partekatua* sortuz ikastetxe-kontzientzia sortzeko aukera.
- Lanbide Heziketan ekintzailtza-grina piztea.
- Irakasleentzako prestakuntza
- Beste ikastetxe batzuekin kolaboratzea.
- Ikastetxearen ikusgarritasuna eta sustapena.
- Europar hiritartasuna sustatzea.



3. NOLA HASI

eTwinning ezagutaraztea eta ikastetxeetan proiektuak hastea ahalbidetzen duten zenbait jarduera:

- Aurkezpen-jardunaldiak hezkuntza-komunitatearentzat.
- Prestakuntza-jarduera baten bidez irakasleei eTwinning jakitera ematea.
- Klaustroa inplikatzeko, etorkizuneko proiektuen berri emanez eta eTwinning proiektuetan lankidetzan aritzearen onurak erakutsiz.
- Familiei eTwinning proiektuen abantailen berri ematea.
- eTwinning txoko bat sortzea, irakasle, ikasle edo familiak informatzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.
- eTwinning dinamizazioa zuzendaritza-taldeen eginkizunetan jasotzea.
- Klaustroari proiektuak koordinatzeko autonomia-erkidegoari esleitu zaion ordutegiaren berri ematea.
- eTwinning plataforman dozenteen garapen profesionala bultzatzea.
- Klaustroko kideak aurrez aurreko prestakuntza-saioetara joatera animatzea: lantegiak, jardunaldiak, eTwinning mintegiak, prestakuntza-ekitaldien deialdi nazionala.
- eTwinning enbaxadore batekin harremanetan jartzea lehenengo etapan laguntza eman dezan.
- Proiektu sinpleak abian jartzea plataforma erabiltzen ikasteko.



4. IKASTETXEAN EKIPOAK NOLA SORTU

Ikastetxean inpaktua izan dezan, funtsezkoa da zuzendaritza-taldeek jarduerak eta proiektuak babestea. Hona hemen ideia batzuk:

- Enbaxadore edo lankide batek zalantzak argitzeko eta behar duten horretan laguntzeko duen prestasuna bultzatuz.
- Ikastetxearen idiosinkrasiarekin eta helburuak lortzearekin lotutako proiektu erakargarrietan lan egiten.
- Diziplinartekotasuna ardatz hartuta interes komuneko proiektuak sortuz.
- Klaustroari onurak jakinaraziz: prestakuntza-kredituen/berrikuntza-proiektuen aintzatespena, garapen profesionalerako aukerak, ikasleen inplikazio eta motibazioaren hobekuntza.
- Ikastetxean berriak diren irakasleentzako hasierako saioak dinamizatuz, eta abian dauden zein etorkizunean egingo diren eTwinning proiektuak ezagutaraziz.
- Izapideak arinduz (plataforman alta ematea eta proiektuei oniritzia ematea)..
- Erasmus+ proiektuetan parte hartzen duten irakasleak inplikatzuz.



5. LAGUNTZA-SAREA

eTwinning-ek laguntza-sare sendoa du eskualde, nazio eta nazioarte mailan.

Garrantzitsua da jakitea zer aukera dauden administrazioaren maila guztietan:

- [Enbaxadore](#) sareak
- Autonomia-erkidegoetako [eTwinning ordezkariak](#). Prestakuntzako aholkulari tekniko autonomikoak dira, eta nazioartekotze- edo berrikuntza-programei lotuta daude askotan.
- Irakasleen Prestakuntzarako Zentroetako aholkulariak, eTwinning ekintza jakitera ematen dutenak eta zentroeiei eta zuzendaritza-talde berriei laguntza ematen dietenak
- [eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionala](#)